

# Haur eta gazte literatura, irakasleen prestakuntza gai

MIGEL ASIAIN ETA ARAZELI MONTES

Aurreko ikasturtearen bukaeran EIZIEk eskatu zigun Literatura Unibertsalaren inguruan emandako ikastaroaren berri ematea. Hona hemen ikastaro horren nondik norakoa...

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren barnean Euskara Zerbitzua, IBiren (Irakasleak Birtziklatzeko Ikastaroak) bidez, arduratzen da euskarazko formakuntza ikastaroak prestatzeaz. Aspalditik darabilgun ekimena da berau, laster 12 urte beteko dira halako ikastaroak ematen direla, eta zenbait urtez ikastaroek euskararen irakaskuntzarekin lotura zuzena izan badute ere (gaurkottze gramatikala, sakontze, EGA...), azken bi-zpahiru urteotan beste arloak ere sartu dira formakuntza ikastaro hauetan: Haur Hizkera, Ipuinak kontatzeko tailerrak... horien artean orain dela bi urte Haur eta Gazte Literaturari, eta pasa den urtean Literatura Unibertsalari eskainitakoak ere sartu ditugu.

Aurreko urtean HGLri eskaini genion ikastaroaren arrakastak eta emaitza onek

bultzatu gintuzten Literatura Unibertsala eskaintzera, honela literaturaren inguruan hezkuntzako bi zikloetan eskaintzen genuen formakuntza: lehen eta bigarren hezkuntzan.

Literaturari eskaini zaizkion bi ikastaro hauetan eskema berdina erabili dugu: sarre-ra gisa hitzaldi orokor batzuk; hautatutako liburua etxean irakurri—aurretik banatutako fitxa baten laguntzarekin—; klasean liburu horren inguruko dokumentazioa azaldu, komentatu... baita aurkitutako proposamen didaktikoak ezagutarazi ere; azkenik, adituekin hitzaldia eta elkarrizketa egiten genuen: Haur eta Gazte literaturaren ikastaroan idazleekin eta Literatura Unibertsalean itzultzaileekin, horiek baitira egokienak, liburua eza gutzen zutelako, horren gainean nola-halako teorizazioa egina zutelako edo, askotan gertatu zaigu, itzultzaileentzat aukeratuak zituzten liburuak mugarri bat zirelako liburu horrekiko edo egilearekiko nolabaiteko afinitate bat zutelako, edo garaia gustatzen zitzaielako.

**Nola planteatu ikastaroa:**

Hasmentan bi planteamendu izan genuen Literatura Unibertsala ikastaro honekin, bi formatu nolabait esateko: batean zortzi liburu aukeratu, horiek leitu eta komentatu; beste planteamenduaren arabera zortzi liburu horiekin batera, beste hamasei liburu gehiago irakurri, klase erdiak zortzi eta beste erdiak beste zortziak, garai, genero, literatura mugimendua edo autorea-ren gaineko informazio gehiago izateko. Azkenik lehen asmoarekin gelditu ginen, sobera lan baitzen gero zortzi liburuez gain, beste zortzi liburu gehiago irakurtzea. Eranskinean sartu dugu hamasei liburu horien aukera, norbaitek ikusi nahi badu.

Lehen lana izan zen liburuen aukera egitea, Nafarroako Literatura Unibertsala ize-neko curriculumean aitzinatetik gure egunetara bitarteko literatura sartzen bada ere, pentsatu genuen gure liburuen aukera mugatzea azken bi mendeotara, hots XIX. eta XX. mendeotara, hots Literatura Unibertsala baino gehiago Literatura Garaikidea landu dugu ikastaro honetan. Bestetik bi puntu izan genuen kontuan liburuak aukeratzetarakoan: eskolan liburu horiek erabili ahal izatea, eta genero desberdinak lantzea.

Hona hemen landu diren lanak:

**Grimm anaien ipuinak.** Genaro Gomez-en edizioa. Iruñea, Pamiela, 1999. (Genaro Gomez-en itzulpena)

**CARROLL, Lewis:** *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian.* Iruñea, Pamiela, 1992. (Manu Lopez-en itzulpena)

**JAMES, HENRY:** *Koxka bat estuago.* Iruñea, Igela, 1993. (Joseba Urteagaren itzulpena)

**STEVENSON, Robert Louis:** *Altxor uhartea,* Euba: Ibaizabal, 1991. (Maria Garikanoren itzulpena)

**POE, Edgar Alan:** *Kontakizunak.* Ibaizabal, Bizkaia, 2000. (Koro Navarrogen itzulpena)

**CHANDLER, Raymond:** *Ez adiorik,* Iruñea, Igela, 1991. (Xabier Olararren itzulpena)

**CALVINO, Italo:** *Marcovaldo edo urta-roak hirian,* Ibaizabal, Euba 1990. (Koldo Biguriren itzulpena)

**SAINT-EXUPÉRY de, Antoine:** *Printzetxikia* Elkar, 2000. (Patxi Zubizarretaren itzulpena)

Zerrendan aski ongi ikusten ahal den bezala, saiatu ginen bi mende hauetako literatura mugimendu garrantzitsuenak islatzen: erromantizismotik hasita (Grimm anaien ipuinak, Poeren kontakizunak), errealismoa (Henry James), errealismo ondokoa (Stevenson...), indibidualismoa (Saint-Exupéry) tartean direla, neorrealismoraino (I. Calvino).

Bestela gertatu zitzaigun generoekin: poesia eta antzerkia kanpoan gelditu zitzaizkigun, ipuingintza eta gchienbat eleberrria landu genuelako, baina denetarako astirik ez, hurrengo ikastaro batetarako utzi behar. Hala ere osagarri antolatu genituen hitzaldietan pociaren lanketak izan zuen presentzia nabarmena, bereziki Tere Irastortza eta Iñaki Aldekoarenean. Ipuingintzan eta eleberrian oinarritu baginen ere, ahalegindu ginen liburu horiek gaurkotasunik izan zezaten, eskolan landu ahal zitezen, alde horretatik saiaturu gara denetatik sartzen: abentura nobelak (Altxor Uhartea), nobela beltza (Poeren kontakizunak aurrekari bezala, Ez Adiorik), bel-

durrezko nobela edo nobela gotikoa (Koxka bat estuago), ipuingintza urbanoa (Marcovaldo) edo umorea (Alice).

### **Metodologia:**

Ikastaro-mintegia izan den honetan, honako hau izan da prozedura:

- a) Literatura unibertsaleko hautatutako liburuak etxean irakurri.
- b) Klasean liburu horren inguruko dokumentazioa eman, azaldu, komentatu... honako puntu hauek ukituz:
  - Kokapen historikoa: garai eta literatur mugimendu horren ezaugarri nagusiak.
  - Idazlea: biografia, lana eta izandako garrantzia.
  - Liburuaren azterketa, ondorengo fixari jarraituz:
    1. Gaia.
    2. Argumentua.
    3. Tonua.
    4. Egitura.
    5. Tokia eta denbora.
    6. Narratzailea (orojakilea, lehen pertsonaren erabilera...)
    7. Pertsonaiak.
    8. Formaren azterketa.
    9. Iritzi pertsonala.
  - Aurkitutako proposamen didaktikoak ezagutarazi.
- c) Itzultzailearen hitzaldia eta berarekin elkarrizketa.  
Itzultzaileek eman zituzten liburu horien gaineko hitzaldiak eta lanketa, horien esku gelditzen zen nola anto-

latu hitzaldia, zeri eman garrantzia, literatura mugimenduaren ezaugarriei, egilearen biografiari, lanari, itzulpeni... Alde horretatik erran behar dugu aski aberatsa suertatu dela modu honetako antolaketa.

Itzultzaileek honako hitzaldiak eman dituzte:

- Kenari Gomez: Grim anaien inguruan.
- Manu Lopez: Alice eta Dogsonen inguruan.
- Joseba Urteaga: Koxka bat estuago eta Henry James.
- Maria Garikano: Altxor Uhartea eta Stevenson.
- Xabier Olarra: Chadler eta nobela beltzaren gainean.
- Koro Navarro: Poe eta Poeren kontakizunen gainean.
- Koldo Biguri: Italo Calvino eta Marcovaldoren gainean.
- Patxi Zubizarreta eta J.K. Igerabide: Printze txikiaren gainean. \*

### **Ikastaroaren programa:**

Ikastaroa urte guztirako planteatu genuen, azaroan hasi eta maiatzan bukatu, beraz osotara 90 ordukoa eta saioak bi-hiru ordukoak izaten ziren: talde lanean aritzekoak normalean hiru ordukoak eta itzultzaileekiko saioak bi, bi ordu eta erdikoak.

Talde lanaz eta itzultzaileen hitzaldiez gain hiru hitzaldi orokor, teoriko izan genituen:

Manu Lopez-ek sarrera teorikoa egin zuen, itzulitako lanen gainean, itzulpenaren betekizuna... Saio interesgarria.



Tere Irastortzak, berriz, marko orokorra paratu zion ikastaroari, poesia, literatura, literatura nola landu ikasgelan... adibide praktikoak, nola uztartu literatura eta haurren interesak...

Azken hitzaldia Iñaki Aldekoa egin zuen, poesiaren lanketa eskolan, zer liburu komentatu, nola landu, zenbait errezeta praktiko...

Hona hemen urte guziko egutegia:

EGUNA	J. M.	JARDUERA	EMAILEA
Azaroak 23	HITZALDIA	<i>Sarrera: Euskarara itzulitako lan esanguratsuenak eta itzulpen estrategiak.</i>	Manu Lopez Gaseni
Azaroak 30	TALDE LANA	GRIMM ANAIAK: <i>Ipuinak.</i> Liburuaren azterketa.	
Abenduak 14	HITZALDIA		Kenari Gomez
Abenduak 21	HITZALDIA	<i>Literatura Unibertsala: azken bi mende-otako gainbegirada. Euskaratutako lan esanguratsuenen aipamena</i>	Tere Irastortza
Urtarrilak 11	TALDE LANA	L. CARROL: <i>Alice.</i> Liburuaren azterketa.	
Urtarrilak 18	HITZALDIA		Manu Lopez
Urtarrilak 25	TALDE LANA	H. JAMES: <i>Koxka bat estuago.</i> Liburuaren azterketa...	
Otsailak 1	HITZALDIA		Joseba Urteaga
Otsailak 8	TALDE LANA	R.L. STEVENSON: <i>Altxor Uhartea.</i> Liburuaren azterketa.	
Otsailak 15	HITZALDIA		Maria Garikano
	TALDE LANA	E.A. POE: <i>Kontakizunak.</i> Liburuaren azterketa.	
	HITZALDIA		Koro Navarro
	TALDE LANA	R. CHANDLER: <i>Ez adiorik.</i> Liburuaren azterketa.	
	HITZALDIA		Xabier Olarra
	TALDE LANA	I. CALVINO: <i>Marcovaldo.</i> Liburuaren azterketa.	
	HITZALDIA		Koldo Biguri
	TALDE LANA	A. SAINT-EXUPERY: <i>Printze txikia.</i> Liburuaren azterketa.	
	HITZALDIA		J. K. Igerabide eta Patxi Zubizarreta
	HITZALDIA	<i>Literatura Unibertsala: azken bi mende-otako poesiari gainbegirada. Eskolan landu daitezkeen proposamen batzuk.</i>	I. Aldekoa

### **Jendea:**

Printzipioz eskainia zen Batxillergoan Literatura Unibertsala aukerako jakingaita lantzen duen jendeari, baina hondarrea bertze arloetatik etorri zitzaigun jendea: ingeles irakasleak, filosofia irakasleak..., nolabait ere literaturarekin zaletasuna zuen jendea; hala ere talderik handiena Euskal Hizkuntza eta Literatura ematen duenena izan da.

Ikastaroa bi taldetan eman dugu: Iruñekoan eta Lekarozkoan, hasieratik ikusi genuelako komeni zela talde txikiak egitea talde lana ahalik eta eraginkorren egiteko, talde handiek ez baitute sobera laguntzen komunikazioa garatzen ikasleen artean. Guztiarekin ere emaileak etortzen zirenean bi taldeak biltzen ziren Iruñean.

### **Balorazioa:**

Ikastaroa 90 ordukoa izan da, beraz, urte guztikoa. Luzea izan bada ere, ikasleek eta koordinatzaileok arras ongi baloratu dugu ikastaroa, literatura lan klasiko batzuk irakurtzeko eta dokumentazioak eta itzultzaileek eskainitako informazioak hornitzeko aukera eman digulako. Dena den, hau guztia, lehenengo urrats baina ez dela ikusi dugu. Hemendik aurrera, landu ditugun lan hauen gainean alde praktikoa jorratzeko beharra ikusi baita, eta heldu den urtean honi jarraituz unitate didaktikoak prestatzeko ikastaroa eskainiko dugu.

Irakasleok ere oso estimagarria izan dugu ikastaro hau, eskatu duen lan handia eta guzti. Eskerrak bi izan garela!



## ERANSKINA:

## Literatura Unibertsalerako liburu osagarriak

- Grimm anaien *Ipuinak* liburuarekin:
  - Perraulten *Ipuinak*. Iruñea, Pamiela, 1993.
  - Andersen, Ch.; *Hemeretzi ipuin*. Euba, Ibaizabal, 1999.
- Henry Jamesen *Koxka bat estuagorekin*:
  - Maupassant, G.; *Roke txikia*, Donostia, Bartleby bilduma, Erein, 1992.
  - Hoffman, E.T.A.; *Hareetako gizona*, Donostia, Bartleby bilduma, Erein, 1992
- Carroll, Lewis; *Alice lurralde miresgarrian*. Pamiela. Iruñea.
  - Carroll, Lewis; *Ispiluan barrena*. Iruñea, Pamiela, 1992.
  - Barrie, J.M.; *Peter Pan eta Wendy*, Bilbo, Gero, 1984.
- Stevenson *Altxor uhartearekin batera*, bi aukera aurreikusi genuen, liburuen tamainari begira gehienbat:
  - a) – Stevenson, R.L.; *Ballantraeko premua*, Iruñea, Igela, 1994.
  - Stevenson, R.L.; *Bahitua*, Iruñea, Igela, 1995.
  - b) – Stevenson, R.L.; *Botilako deabrua*, Donostia, Elkar, 1992.
  - Stevenson, R.L.; *Suiziden elkartea*, Donostia, Elkar, 1997.
- E. A. Poe-ren *Kontakizunak* liburuarekin:
  - Twain, M.; *Huckleberry Finnen abenturak*. Euba, Ibaizabal, 1990.
  - Conrad, J.; *Ilunbeen bihotzean*, Euba, Ibaizabal, 1990.
- Italo Calvinorekin (*Marcovaldo edo lau urtarok*):
  - Calvino, I; *Bizkonde erdibitua*. Donostia, Elkarlanean, 1989.
  - Moravia, A.; *Erromako emakumea*, Euba, Ibaizabal, 1993.
- Saint-Exupery: *Printze txikia*. Elkar. Donostia.
  - Mansfield, K. *Lorategietako festa...* Euba, Ibaizabal, 1999.
  - Austen, Jane; *Harrotasuna eta Aurrejuzkuak*, Euba, Ibaizabal, 1997.
- Chandlerren *Ez adiorik* liburuarekin:
  - Hammet, D. *Maltako belatza*, Iruñea, Igela, 1997.
  - Highsmith, P.; *Ripley trebea*, Iruñea, Igela, 1999.